SAILBURUA

CONSEJERO

IDATZIZKO ERANTZUNA, Rebeka Ubera Aranzeta EH Bildu taldeko legebiltzarkideak egindako galderari emana. Gaia: "Euskara jakitea lehenestea Osakidetzako lehentasunezko unitateen aldi baterako kontratazioetan". (11/10/07/03/0360-3883)

Osakidetzaren egitura-plantillako lanpostuak ordezteko edo betetzeko ez diren aldi baterako izendapenetan –"behin-behinekoak" esaten zaien izendapenetan– eta gaur egungo Kontratazio Akordioa aplikatuta, kontratazio-zerrendako kideen lehentasun-ordena erabakitzeko balio du euskarak, baina euskara jakitea ez da betebeharra zereginetara sartzeko eta zereginak betetzeko. Horregatik jaso zen Euskararen II. Planean, 2013ko abenduan, horrelako aldi baterako izendapenetan euskararen irizpidea sartzeko konpromisoa. Onartu zenetik, Kontratazio Akordioa eguneratzeko ahalegina egin da Mahai Sektorialean, baina orain arte ez da akordiorik onartu. 2017ko martxoaren 28an egin zitzaien sindikatuei Aldi Baterako Kontratazioari buruzko Akordioa lortzeko azken eskaintza, eta eskaintza horretan aldi baterako kontratazioetan euskara jakiteko betebeharraren aipamena jasotzen zen.

Langileak kontratatzeko akordio berria onartu bitartean –hor jasoko dira, oro har, kontratazio-irizpideak eta -arauak–, eta zerbitzu-erakundeetan sortzen diren langile-premiei erantzuteko printzipio orokorrak ezarri eta aldi berean arreta elebiduna bermatzeko xedez, Osakidetzak komenigarritzat jo zuen jarduteko jarraibideak ezartzea, udako izendapenetarako zehazki eta aldi baterako kontratazioetarako oro har. Ondorio horietarako, jarduteko irizpideak proposatu ziren, egitura-plantillako lanpostuak ordezteko edo betetzeko ez diren aldi baterako izendapenetan hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko betebeharrari dagokionez. Zehazki, honako jardun-irizpide hauek proposatu eta igorri ziren Langile Zuzendaritzetara:

> 1-. Lehentasun handienekotzat tipifikatutako unitateetan (1 lehentasuneko unitateak) euskaraz jakitea lehenetsiko da; alegia, euskaraz badakitela egiaztatzen duten hautagaiak kontratatuko dira. Kontratazio-zerrendetan hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duen hautagairik ez dagoen kasuetan, eta orduan bakarrik, kontratazio-zerrendako hautagaien lehentasun-ordena aplikatuko da. Oro har, hauek dira lehentasun handieneko unitateak:

A) Harrera-, onarpen- eta informazio-unitateak.
b) Pediatriako larrialdiak.
c) Eremu soziolinguistikorik euskaldunenetako erizaintza, pediatria eta medikuntza orokorreko Lehen Mailako Arretako zentroak (euskaldunen dentsitatea >% 45 baino).

2.- 2. lehentasuneko unitateetan, hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten hautagai kontratatuen ehunekoa unitate bakoitzean ezarritako derrigortasun-ehunekora iristen dela zainduko da.

3.- Osakidetzaren Euskara Planean lehentasunezkotzat tipifikatuta ez dauden unitateetan (3. mailako lehentasuna dutenak edo lehentasunik ez dutenak), kontratazio-zerrendako lehentasun-ordena aplikatuko da, euskararen berariazko eskakizunik gabe.

Kontratazioari eta euskarari buruzko gida praktiko hori da Osakidetzaren egitura-plantillako lanpostuak ordezteko edo betetzeko ez diren aldi baterako izendapenetan euskararen ezagutza bermatzeko euskarria, dagokion araudia egokitzen den artean

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 19a

Jon Darpón Sierra.

OSASUNEKO SAILBURUA

SAILBURUA

CONSEJERO

RESPUESTA ESCRITA a la pregunta formulada por D.ª Rebeka Ubera Aranzeta, Parlamentaria del Grupo EH Bildu, relativa a la "priorización del conocimiento del euskera en las contrataciones eventuales de las unidades preferenciales de Osakidetza ". (11/10/05/03/0360-3883)

En los nombramientos de carácter temporal que no responden a sustitución o cobertura de plazas de plantilla estructural –nombramientos denominados "eventuales"–, y aplicando el actual Acuerdo de Contratación, el euskera sirve para determinar el orden de prelación de los componentes de la lista de contratación, pero no supone la exigencia de su conocimiento para el acceso y desempeño de funciones. Por ese motivo fue recogido en el II Plan de Euskera en diciembre de 2013 el compromiso de incluir el criterio del euskera en este tipo de nombramientos eventuales. Desde su aprobación se ha tratado de actualizar el Acuerdo de Contratación en el seno de la Mesa Sectorial, sin lograr acuerdo hasta el momento. La última oferta a los sindicatos para lograr un Acuerdo de Contratación Temporal se realizó el 28 de marzo de 2017, en el que se incluía mención a la exigencia del euskera en las contrataciones temporales.

En tanto se aprobara el nuevo acuerdo de Contratación de personal, en el que se contendrán, con carácter general, los criterios y normas de contratación y al objeto de conjugar los principios generales de cobertura de necesidades de personal que se producen en las organizaciones de servicios, y garantizar la atención bilingüe, en Osakidetza se estimó conveniente establecer pautas de actuación para los nombramientos de verano en particular y las contrataciones temporales en general. A estos efectos, se propusieron criterios de actuación en relación con la exigencia de acreditación de perfil lingüístico en los nombramientos de carácter temporal que no responden a sustitución o cobertura de plazas de plantilla estructural. Concretamente se propusieron y remitieron a las Direcciones de Personal los siguientes criterios de actuación:

> 1-. En las Unidades tipificadas como de máxima prioridad (unidades de prioridad 1), primará el conocimiento del euskera, es decir, se contratará a candidatos que acrediten su conocimiento del euskera. Sólo cuando no se disponga de candidatos con perfil lingüístico acreditado en las listas de contratación, se aplicará el orden de prelación general de los candidatos de la lista de contratación. Con carácter general, las unidades de máxima prioridad son:

a) Todas las unidades de recepción, admisión e información.
b) Urgencias de pediatría.
c) Enfermería, pediatría y medicina general de centros de Atención Primaria ubicados en zonas sociolingüísticas más favorables (densidad de población euskaldun >45%).

2.- En las unidades de prioridad 2 se velará para que el cumplimiento de contratación de candidatos con PL acreditado llegue al porcentaje de preceptividad establecido en cada unidad.

3.- En las Unidades no tipificadas como prioritarias en el Plan de Euskera de Osakidetza (unidades de prioridad 3 o no prioritarias), se aplicará el orden de prelación de la lista de contratación, sin requisitos específicos de euskera.

Esta guía práctica para la contratación y el euskera es el soporte para asegurar el conocimiento del euskera en los nombramientos de carácter temporal que no responden a sustitución o cobertura de plazas de plantilla estructural, en tanto en cuanto se renueve el Acuerdo de Contratación Temporal.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de mayo de 2017

Jon Darpón Sierra

CONSEJERO DE SALUD